



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

GALDERA - ERANTZUNAK: PROPIETATE OSASUNGARRIEN JAKINARAZPEN BAIMENDUEN ZERRENDA

ITURRIA: EB

Zergatik heldu zion EBk produktuen “propietate osasungarrien jakinarazpenen” gaiari?

Kontsumitzaileek balio erantsia bilatzen dute elikagaiak erostean. Garrantzi handia ematen diote osasunari, eta jakitunagoak dira euren dietarekin eta kontsumitzen dituzten elikagaiekin duten loturari dagokionez. Hori horrela, propietate osasungarrien jakinarazpena informazio-iturri garrantzitsua izan daiteke, eta funtsezko marketin-lanabes bihurtu da. Bere sasoian, propietate osasungarrien jakinarazpenak engainagarriak edo faltsuak izan zitezkeela eta, kezka zabaldu zen, eta horrek alarmak piztea ekarri zuen kontrol hobe eskatzeko.

1924/2006 (EE) Araudiak, nutrizio-deklarazioei eta propietate osasungarriei buruzkoak, eskatutako kontrol horiek egitea ahalbidetu zuen. Araudiak bermatu egiten du kontsumitzaileen babes-maila handia; izan ere, produktuak hautatzea errazten du dieta anitz eta orekatua egiteko, eta hori alde zuzeneko betekizuna da osasun ona izateko. Adierazpenek ezin diete ziria sartu kontsumitzaileei: zehatzak, egiazkoak, ulergarriak eta zientifikoki onartuak izan behar dute.

Galderak eta erantzunak: propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduen zerrenda

Araudi hau aplikatzeko, propietate osasungarrien jakinarazpen onartuen eta baimenduen zerrenda onetsi behar da. Horretarako, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agentziak (EFSA) egindako ebaluazio zientifikoa hartu behar da oinarritzat. Ebaluazio horrek justifikatu egin behar du aitortutako efektua eta bete egiten direla Araudian jasotako gainerako betekizun orokor eta zehatzak.

Estatu-kideek propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduen zerrenda onetsi zuten joan den abenduaren 5ean, eta hori pausu garrantzitsua izan zen 1924/2006 (EE) Araudiaren aplikazioari dagokionez.

Zergatik luzatu da jakinarazpenen onespena 2006ko erdialdetik 2011ko amaierara arte?

Guztira propietate osasungarrien 44.000 jakinarazpen aurkeztu dituzte estatu-kide guztien artean. Denbora behar da jakinarazpen-kopuru handi hori azkenean 4.600 sarrera dituen jakinarazpen-zerrendan sartzeko, gero EFSAk balioesteko.

2

Azken zerrendak propietate osasungarrien 222 jakinarazpen ditu – Zer gertatu da zerrendan agertzen ez diren gainerako 4.000 jakinarazpenekin?

Onetsitakoen zerrendan sartu diren osasun-alegazioek alde zuzeneko zerrendako 500 sarreraren ordezkari dira, ia. Eskatutako baimentze-prozesua bete da horien kasuan. Halaber, baimentze-prozesua amaitu da onartu ez diren beste 2.000 sarrerarako, eta gainerako alegazioak (2.000 inguru) baimentze-prozesua noiz amaituko zain daude.

Galderak eta erantzunak: propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduen zerrenda

Zein egoeratan daude onartu ez diren eta baimendutakoen zerrendan ez dauden alegazioak?

Baieztapen horietarako bi prozedura ditugu:

Lehenik, zain dauden jakinarazpenak erabili ahal izango dira propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduen zerrenda onetsi aurretik. Horrek esan nahi du merkatuan erabiltzen jarraitu ahal dela, elikagaien enpresako eragilearen ardurapean eta betiere 1924/2006 (EE) Araudia eta aplikatzen dakizkiokeen indarreko xedapen nazionalak betetzen badira.

Bigarrenik, onartu ez diren jakinarazpenak erregistro batean bilduko dira eta azaldu egingo da zergatik ez diren onartu. Baimendutako jakinarazpenen zerrenda indarrean sartu eta sei hilabete igarota, jakinarazpenei buruzko Araudiarekin bat ez datozela adieraziko da, eta debekatu egongo da horiek erabiltzea.

3

Non aurki dezaket informazio argia erreklamazio guztien egoerari buruz?

Behin propietate osasungarrien jakinarazpen-zerrenda modu ofizialean onetsita, Egunkari Ofizialean argitaratuko da. Aldi berean, Erregistroa eskaera guztiekin eguneratuko da baimentze-prozesua osatzeko (hala propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduen zerrenda nola baimendu ez direnen zerrenda).

Galderak eta erantzunak: [propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduen zerrenda](#)

Batasunaren Erregistroa Osasun eta Kontsumoaren Zuzendaritza Orokorraren web-orrian dago eskuragarri:

http://ec.europa.eu/food/food/labellingnutrition/claims/community_register/index_en.htm

Bertan, behin zerrenda argitaratuta, prozesuan hasiera batean aurkeztutako alegazio guztien egoera ikusi ahal izango da.

Nola erabili ahal izango dira propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduak?

Edonork erabili ahal izango ditu zerrendan agertzen diren propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduak, betiere erabilera-baldintzak betetzen badituzte. Erabilera-baldintzek ziurtatu egin behar dute alegatutako efektua lortu egiten dela.

Zerrendako alegazioak idatzita dauden moduan erabili behar dira, bai eta erabilitako hizkera oso zientifikoa denean ere?

Gerta daiteke propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduak beste modu batean azaldu behar izatea hizkuntza- edo kultura-ezberdintasunak direla eta. Hori dela eta, propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduen zerrendak malgutasuna uzten die elikagaien enpresetako eragileei, betiere aldatutako jakinarazpenak propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduaren esanahi bera gordetzen badu kontsumitzaileentzat. Gakoa da gaizki-ulertuak saihesteko moduan idaztea.

Galderak eta erantzunak: propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduen zerrenda



Baimendutako jakinarazpenen zerrendan ez dauden jakinarazpen guztiak egia ez esateagatik baztertu dira?

Ez du zertan horrela izan. Lehenengo betekizuna ebaluazio zientifikoa zen, eta horren ondoren Araudian jasotako beste betekizunak betetzen ziren aztertzeko testa egin zen. Ebaluazioan, EFSAk hiru elementu aztertu zituen:

- Jakinarazitako efektua behar beste definitu ahal den ebaluazio zientifikoa egiteko.
- Bilatzen den efektua zalantzarik gabe osasungarria den.
- EFSAk bidezkotzat jotzen dituen azterketek ahalbidetu ahal duten kausa-eragina lotura ezartzea elikagaiaren eta jakinarazitako efektuaren artean.

EFSAren aurkako iritzia elementu horietako edozeinetan oinarritu ahal izan da.

Zein da landare-osagaien deklarazioen egoera?

Landarez egindako substantzia jakin batzuk landarez egindako tradiziozko sendagaien osagaien artean zen elikagaien osagaien artean egon daitezke; hortaz, posible da substantzia berean antzekoa izatea landarez egindako tradiziozko sendagaien ekoizleek emandako jarraibide terapeutikoa eta elikagaien ekoizleek egindako propietate osasungarrien jakinarazpena

Galderak eta erantzunak: propietate osasungarrien jakinarazpen baimenduen zerrenda

(beharrezkoak diren bereizketekin; izan ere, debekatuta dago elikagaietan mediku-jakinazpenak egitea).

Osasun-alegazioek eta landarez egindako tradizioko sendagaiek legebetekizun ezberdinak dituzte eta horrek substantzia bera modu ezberdinean tratatzea ekar lezake, alegia, substantzia bat ez litzateke berdin tratatuko elikagai batean badago edo sendagai batean badago. Horrek merkatuan landarez egindako produktuak baztertzea ekarriko luke, baita kontsumitzaileentzako nahasketak ere. Batzordean denbora luzeagoa behar dute gaiari nola heldu erabakitzeko, eta horregatik baieztapen horiek itxaron egin beharko dute.

Zer egingo du Batzordeak landare-osagaiekin?

Hausnarketa martxan dago, eta helburua da etorkizunean sendabelarrei trataera uniforme eta koherentea ematea.